



## **Emakumea izango da Lehiaren Euskal Agintaritzaren ekimen ugariaren protagonista 2021ean**

Azpitarratzekoa da EHUren “Emakumearen ahotsa lehiaren zuzenbidearen erronken aurrean” Udako Ikastaroaren antolaketa

Halaber, lehiako emakume profesionalak ahalduzera bideratutako Europako Ikastetxearen Mentoring Programan parte hartzen ari da.

**BILBON, 2021eko martxoaren 8an / Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) jarduera ugari egingo ditu 2021ean zehar, emakumeek lehiaren esparruan betetzen duten lekua ikusarazteko eta bultzatzeko.**

LEA/AVCk gauzatuko dituen ekimenen artean, nabarmentzekoa da Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) ekainerako antolatu duen “Emakumearen ahotsa lehiaren zuzenbidearen erronken aurrean” Udako Ikastaroa. Ikastaro horretan, hizlari guztiak emakumeak izango dira, eta, besteak beste, honako gai hauek jorratuko dira: genero-ikuspegia lehia-arauen balorazioan edo emakumeek betetzen duten lekua kartelak eta bestelako jokabideak detektatzeko eta zigortzeko tresnak diseinatzeko orduan. Alba Urresola Clavero LEA/AVCko lehendakariarekin eta Enara Venturini Álvarez LEA/AVCko kontseilukidearekin batera, nazioartean arlo profesionalean kargu garrantzitsuak dituzten emakumeek hartuko dute parte: Cani Fernández Vicién, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko (CNMC) presidentea; Marisa Tierno Centella, Lehiaren Zuzendaritza Nagusiko Kartelen Unitateko buruaren ondokoa; Despina Pachnou, OCDEko Lehia arloko aditua; Susana Grau Arnau, Lehiaren Kataluniako Agintaritzako Instrukzio zuzendaria; Elena Leiñena Mendizabal, Merkataritza Zuzenbideko irakasle agregatua eta EHUko Berdintasunerako zuzendaria; eta Carmen Herrero Suárez, Merkataritza Zuzenbideko irakasle titularra Valladolideko Unibertsitatean.

2021ean, LEA/AVCk lehiaren esparruan lan egiten duten emakume profesionalak ahalduztea helburu duen Europako Elkargoaren Mentoring Programan parte hartzen ari da. Europako Ikastetxea Salvador de Madariagak 1949an Brujasen (Belgika) sortutako europar ikasketetarako ospe handiko erakundea da. Europar ikasketetarako zentro hau munduko zaharrena da.

Era berean, LEA/AVCk OCDEren Gender & Competition lantaldean eta W@Competition (Woman at Competition) sarean parte hartzen jarraituko du. Azken hau Lehiaren Zuzenbideko emakume profesionalen Europako sarea da, eta espazio publikoan emakumeen presentzia normalizatzea eta lotura eta harreman profesionalak erraztea du helburu.

### **Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz**

Lehiaren Euskal Agintaritzak, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko



Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta autonomia organikoa eta funtzionala du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduketara ekonomikoei dagokienez.